

Kanalak

Gure produktuak modu ezberdinetara lortu ahal izango dira, esan bezala cupra enpresarekin gaude aliatuta eta beraien kotxeetan egongo da kargatzeko teknologia hori, beraz edo gure dendetan edo Cuprako dendetan erosi ahal izango da, Cupraren bitartez erosten badute produktuaren distribuzioaz beraiek arduratiko dira, baina gure denda onlinean erosten badute produktua segur bitartez ailegatuko zaie.

Komunikazio kanalak oso garrantzitsuak dira. Komunikazio-kanalak mezua igorlearengandik hartzailearengana transmititzeko euskarriak dira. Zirkularrak, Internet, telefonoa, e-maila, sms, irratia, prentsa, telebista... asko dira erabil ditzakegun komunikazio-bideak. Guk, twitter, instagram eta tiktok erabiliko ditugu gure produktua promozionatzeko. Horrela gaur egun, aplikazio hauek sortu den arrakasta eta globalizazioa aprobetxatu egiten dugu. Baita ere orrialde web bat edukiko dugu, gure informazioa, enpresaren kokapena eta gure produktuak online erosteko aukera egongo da bertan.

Horain banaketa kanalez hitz egingo dizuegu. Banaketa-kanalak fabrikatzailea kontsumitzaileekin harremanetan jartzen duten bitartekoak dira. Sistema horren bidez, enpresa batek bere produktuak edo zerbitzuak helmugetara helarazten ditu, eta, beraz, kontsumitzaileak aurkitu ditzakeen lekuen kopurua biderkatzen du. Gure kasuan, bezeroekiko harremanak indirekto eto direktoak direlako, gure distribuzio kanalak izango dira;

- 1- Gure langileak eramango dute gure produktuak kontzesionarioitara.
- 2- Gure aliantza Cuprarekin aprobetxatuz, Cuprako pertsonala etorriko da gure produktuaren bila, beraiek distribuitzeko.

Kontzesionarioan eta Cupran egongo dira gure produktu guztiak salgai eta online eskatzen badute gure produktuak, aukeran egongo da Cupran edo Kontzesionarioan hartzea.

Salmenta kanalak, produktuak edo zerbitzuak kontsumitzaileei erakusteko bitartekoa salmenta-kanal bat da, eta enpresaren beraren eta balizko bezeroaren arteko harremana ahalbidetzen du. Hori ere dibulgazio-kanal bat izan daiteke, eskaintzen den produktua edo zerbitzua sustatzeko. Lehenago aipatu dudana bezala, gure web orritatik + sare sozialak erabiliko ditugu gauza hauek guztientzako.



